


TXIRRINDULARI BATEN EGUNEROKOA

BIDEAK, ALDAPAK ETA BIHURGUNEAK

Juan Luis Zabala
Elkar
2007



Bideak, aldapak eta bihurguneak du izena Juan Luis Zabalak 2007 argitaratu zuen liburuak. Juan Luisen lan honetan zehar hainbat gai lantzen dira, hala nola: maitasuna, lagunen arteko liskarrak, txirrindularitza... Dagoeneko 18 urte dituen liburu hau eguneroko batean dago oinarrituta eta bertako kapitulu edo atalak egunerokoaren egunetan banatzen dira.

Protagonistaren anaiak, Ibon izenekoa, Frantziako Tourra uzten du. Ibonen zaleak bere kontra jartzen dira. Arreba izanik, inork ez dio protagonistari kasorik egiten, ez Amaiak, ez ingeles akademiako lagunek. Arazo honen ondoren beste arazo batzuk ere sortzen dira. Protagonista bi mutilez maitemintzen da eta ez daki nor maite duen gehien. Bihotza bitan dauka zatituta. Bitartean Amaiarekin eta gaztetxeko punkiekin arazoak izaten ditu. Lagunekin egoteko, gaztetxera joaten da eta hor gorabeherak izango dira. Behin ertzainak joaten dira eta gaztetzeko jende guztia kanporatzen dute.

Liburuaren atalak errazak dira ulertzeko, nahiz eta nire hiztegirako ez ohiko hitzak egon. Ni gaztea izanda, protagonistaren arazoak ulertu eta sentitu ditut. Liburu honek gauza hobeak gehiago ditu txarrak baino. Hau da, liburu honek alderdi oso onak dituela esango nuke. Gazte askorena izan litekeen bizitzari buruz hitz egiten du eta horrek asko laguntzen du. Gainera, liburu oso interesgarria da.

Asko gustatu zait idazleak liburua idatzi duen modua. Orokorrean liburua gustatu zait eta jendea animatzen dut liburua irakurtzera.

Ane Fernandez

Aiurri, 2025-02-16